

Hitzak

Bedatsearen heltzean
Bazterrak dirade betatzen lorez,
Bortüetan ere ola saria nola beztitzen belarrez
Artzainak gü, goizaldi eder batez
Gora бүрүз bagoatza plazerez
Gure ardi saldoak aitzina hotsamanez
Üdakozen dener adio erranez
(*Bedatsearen heltzean, Etxahun IRURI*)

Zü zira zü,
Ekiaren pare, liliaren floria
Eta mirail ezinago garbia
Ikusirik zure begitarte
Ez lizateke posible maitea
Düdan pazentzia
Hainbeste zira glorifikagarria

Oi krüdela,
Erierazi naüzü, ütsüerazi naüzü
Ülünpean eradükitzen naüzü!
Argitüren dela erraiten deitadazü
Denbora da aitzina joaiten,
Sekülan ez argitzen
Üdüritzen zait naizüla abandonatzen
(*Zü zira zü, herrikoia*)

Nola deitzen zira zira zira zira
Nola deitzen zira zü, zira zü
Deitzen nüzü nüzü nüzü nüzü
Deitzen nüzü Kattalin

Nonkoa zira zira zira zira
Nonkoa zira, zira zü
Ni Gamereko, meko meko meko
Ni Gamereko nüzü ni
Xoxoak galdü бүрүа,
Bүрүа, gaixoa xoxoa.
(*Nola deitzen zira*)

Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoa.

Xoxoak galdü begia,
Begia, бүрүа, gaixoa xoxoa.

Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoa.

Xoxoak galdü moskoa,
Moskoa, begia, bürüa, gaixoa xoxoa.

Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoa.

Xoxoak galdü lepoa,
Lepoa, moskoa, begia, bürüa, gaixoa xoxoa.

Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoa.

Xoxoak galdü hegala,
Hegala, lepoa, moskoa, begia, bürüa, gaixoa xoxoa.

Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoa.

Xoxoak galdü zankoa,
Zankoa, hegala, lepoa, moskoa, begia, bürüa, gaixoa xoxoa.

Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoa.

Xoxoak galdü aztaparra,
Aztaparra, zankoa, hegala, lepoa, moskoa, begia, bürüa, gaixoa xoxoa.

Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoa.

Xoxoak galdü zentzüa,
Zentzüa, aztaparra, zankoa, hegala, lepoa, moskoa, begia, bürüa, gaixoa xoxoa
(*Xoxoak galdü bürüa, herrikoia*)

Ximun, Ximun gibealeko leihoan
Xalbador, Xalbador ez da hor, ez da hor
Xabier, Xabier bortatik so bazterrer!
(*Ximun Ximun*, hitzak: René Bedecarrax / müsika: Niko Etxart)

Kükürükü!
Zer dük oilarra?
Bürüan min
Zerk egin deik?
Axeriak
Non da axeria?
Kapar peetan
Non da kaparra?
Süiak erratzen.
Non da süia?
Hurak itotzen
Non da hura?
Behiek edaten
Non dira behiak?
Arto ereiten

Non da artoa?
Oiloek jaten
Non dira oiloak?
Arrautze errüten
Non da arrautzea?
Apezak jaten
Non da apeza?
Meza emaiten
Zerentako da meza?
Zelü gain-gaineala joaiteko
(Kükürrükü zer dük oilarra, herrikoia)

Kükürrükü, nor gira gü?
Mauletarrak... Barkoxtarrak... Xiberotarrak.....gira gü
Kükürrükü, nor gira gü?
Mauletarrak...Barkoxtarrak... gira gü

Kükürrükü, nor gira gü?
Ez lotsorrak, ez lotsorrak, ez lotsorrak gira gü,
Kükürrükü nor gira gü?
Ez lotsorrak gira gü
(Kükürrükü nor gira gü, herrikoia)

Lilirik eijerrenak jelki direnean
Bedatsea mintzo da arrosa esküan
Bai eta kantüz ari txorien artean
Sasu ederragorik ez dela urtean

Üdak arrapostü: jar hadi heinean!
Gaztetto behiz ez sar otoi ürgüllüan!
Badüka jatekorik deus ere etxean?
Ogiak zohi dütük ene alorrean

Aize herots batekin mintzo larrazkena
Züek espanto bena nik diat fortüna
Frütü hoberenetan hartzen diat jana
Tziauste txesta dezagün ene ardo hona

Negüak ihardetsi: "Lüze diat bizarra,
Freskatüren zaüzüe orano südürre
Hona nük züen hütsen laster lamatzera,
Birjinitate batez estaltzen diat lürre".
(Lau sasua, Louis Ligetx (1901-1940))

Lili bat ikusi düt baratze batean
Desiratzen beinüke ene saihetsean,
Lorea ez dü galtzen üdan ez negüan
Haren parerik ez da beste bat mündüan

Deliberatü nüan gaü batez joaitea
Lili arraro haren esküala hartzea
Ez beinüan pentsatzen begiratzen züela
Gaü hartan uste nüan, han galtzen nintzala

Etsenplü bat nahi düt eman güzieri
Eta partikülazki jente gazteari
Gaüz ibiltzen dena ez da zühür ari
Ni begiratüren niz, eskerrak jaunari!
(*Lili bat ikusi düt, herrikoia*)

Arri arri mandoko
Bihar Iruñerako
Hantik zer ekarriko,
Zakata bat küküso
(Edo : Zapata eta gerriko)
Horik oro norentako?..... -tako!
(*Arri arri mandoko, herrikoia*)

Oihan beltzean orotan orro
Nork ez dü entzün Zikilimarro?
Orro ta orro
Orro ta orro
Zikilimarro!

Bardaz geroztik Zikilimarro
Bere onetan isilik dago!
Isilik dago
Zikilimarro!

Mamu zaharrak üken du tiro
Adio beraz zikilimarro!
Üken du tiro
Zikilimarro!

Ez izan beldür, Pattin, gehiago
Bardaz geroztik, hila baitago!
Hila betiko
Zikilimarro!
(*Zikilimarro, herrikoia: Duny-Pétre bildüma*)

Pitipin patapan
Bi esküak batetan
Tekak pünttakatü bertan
Eta Basajauna badoa
Tarrapatan
(*Pitipin patapan, egilea: IKAS Xiberoa*)

Txorittoa
Bilagarrottoa
Atzamailettoa
Tipilzalettoa
Jale jalettoa
(*Txorittoa bilagarrottoa*, herrikioa)

Ürzo xuria errazü
Norat joaiten ziren zü
Espainiako mendiak oro
Elürrez beteak dütüzü,
Gaurko zure ostatü
Gure etxean badüzü

Ez naü izitzen elürrak
ez eta ere gaü ülünak
Maiteaganik pasa nitzazke
Gaüak eta egünak
Gaüak eta egünak, desertü eta oihanak
(*Ürzo xuria errazü*, herrikoia)

Arruela marruela
Txola kamela petra
Manja rita segella
Kirun Karun pek
(*Arruela marruela*, herrikoia)

Arla, marla
Kaste seme
Lili da burtsan xilo
Koko mieko zeope zeope
(*Arla marla*, herrikoia)

Pin-pin txoria
Txori papo gorria
Jan jan küñata
Txori saltsa hon beita

Pin-pin txoria
Txori mosko holliä
Txo txo, guaita
Erbi bat horra beita
(*Pin-pin txoria*, herrikoia; Dunny-Pétre bildüma)

Oi Pello Pello, logale nük eta jinen niza ohera?
Irun ezan eta, gero gero gero, irun ezan eta gero gero bai

Oi Pello Pello, irun diat eta jinen niza ohera?
Aztalkazan eta, gero gero gero, aztalakazan eta gero gero bai

Oi Pello Pello, aztalkatu diat eta jinen niza ohera?
Harilkazan eta gero gero gero, harilkazan eta, eta gero gero bai

Oi Pello Pello, harilkatu diat eta jinen niza ohera?
Jos ezan eta, gero gero gero, jos ezan eta eta gero gero bai

Oi Pello Pello, josi diat eta, jinen niza ohera?
Argia dün eta, bihar bihar bihar, argia dün eta jinen hiz bihar
(*Oi Pello Pello*, herrikoia)

Pin pan pin tiroak hil dü lapin
Pin pan pin, gaixoak ote dü min?

Pan pin pan Aitañik behar dü jan
Pan pin pan saltsa hona mahainen!
(*Pin pan pin*, Marie-Jeanne Minaberry)

Sagü txipi, sagü maite
Zü xiloala sar zite
Gatüak ikusten bazütü,
Kris kras, kris kras,
Janen zütü
(*Sagü txipi, sagü maite*)

Ase eta pasea
Gose eta etxea
(Erran zaharra, herrikoia)

Furra Furra fandangoa
Hortxe duzu fandangoa
Geure gustukoa

Gaur goizean jeiki naiz
umore onean
tanke bat topatu dut
neure kafesnean
ez dakit zer daukagun
bake ala gerra
bainan nik badaezpadan
egin dut puzkerra.

Zerbait egitekotan
zuzen eta artez
zorri bat garbitu dut
ur pistola batez
orain galdurik nago
beldurrez beteta
muniziorik gabe
gelditu naiz eta

Furra Furra fandangoa
Hortxe duzu fandangoa
Geure gustukoa

(*Furra furra*, hitzak: Xabier Amuriza / müsika: Natxo de Felipe)

Jin jan joan
Jarri baiko joan
Juana, Erramun
Jeik eta arrajoan

(*Jin jan joan*, egilea: IKAS XIBEROA)

Jeiki jeiki etxekoak
Argia da zabala,
Itsasotik mintzatzen da zilarrezko tronpeta
Bai eta ere ikaratzen
Holandresen ibarra

(*Jeiki jeiki*, herrikoia)

Buba ñiña
Ñiñatto bubatto
Haurra dela ttipitto

(*Buba ñiña*, herrikoia)

Ttipiñiñi
Jaun kosi
Jan Pantzar
Lekatupi
Matapedui

(Erhien joküa: *Ttipiñiñi*, herrikoia)

Lo hadi aingürüa, amaren altzoan
Hire erri eijerra botz ezpain xokoan
Axolpean gütük bena, nik tristüra gogoan
Aro gaitza dük kanpoan,
Ta aita itsasoan

Behazak aize beltza, mehatxükaz ari,
Zer gaüaldi lüzea, zoinen etsigarri
Harritürik, ikara niz, lotürik kürütxeari
Otoitzez jinkoari, egin dezan argi
(*Lo hadi aingürüa*, Etxahun IRURI)

Otsoari agrada bildotsa
Bildotsa aldiz lotsa
Ezti marraka hotsa,
Eta latz hagin en herotsa
(*Otsoa eta bildotsa*, IKAS Xiberoa)